



martxoak

EMAKUMEEN  
NAZIOARTEKO  
EGUNADÍA  
INTERNACIONAL  
DE LAS MUJERES

de marzo

AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNeko  
BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 → Mendekotasun ereduak apurtuz, gizarte parekide baten alde
- Martxoak 8
- Quince nuevas plazas concertadas en Arangoiti
- Euskara errefortzua

BEASAIN,  
HERRI BIZIA

- 4 → Urrezko Aizkora
- Azoka berezia
- Odolkiaren kofradia
- Matxinbentako jaiak
- 80. hamarkadako erakusketa
- Hiri hobekuntzak
- Igartza Musika
- Dantzan.com

BEASAINDARRAK  
PROTAGONISTA

- 6 → ASMUBE
- Beasaingo emakumeen elkarte
- Asociación de mujeres de Beasain

MARTXOAN  
BEASAINEN...

## GUTUNA



**Irma Arnaiz**  
Berdintasun zinegotzia

### MENDEKOTASUN EREDUAK APURTUZ, GIZARTE PAREKIDE BATEN ALDE

Gaur egun, emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna aldarrikatzeaz gain, jendarte-eredu parekidearen aldarrikapena ere egiten da martxoaren 8an.

Parekidetasunaren alde urrats garrantzitsuak eman dira azken urteotan baina egun oraindik bereizkeria, desberdintasun-egoerak, nabariak dira hainbat esparrutan: lan merkatuan, partaidetzan, erabakiak hartzean, etxeko lanen banaketan, familiaren zaintzan, emakumeen aurkako indarkeria kasuetan eta baita maitasunean ere.

Mendebaldeko kulturen, maitasuna eta emozioak ulertzeko moduaren arabera eraikitzen dira gizartea eta harremanak. Maitasunak harremanak antolatzen ditu zenbait kasutan, bikotean, amatasunean eta zainketa lanetan, adibidez. Maitasunak zer den eta ez den garrantzitsu eta zer dagokien gizonei eta zer emakumeei arautu dezake, eta kasu horietan mendekotasun egoerak sortzen dira. Horregatik, feminismoak mahai gainean jarri du gaia, guztiok elkarrekikotasunaren inguruan hausnar dezagun, maitasuna ez dadin izan beste mendekotasun modu bat. Eta horixe lantzen ari gara DBHko Beasaingo ikastetxeetan.

Gauzak ez dira egun batetik bestera aldatzen, emakumeek, gizonek, familiekin, ekoizpen-sektoreek... eraldaketa sakona bizi behar dute, eta horretarako erdigunean jarri behar dugu heziketa eta hezkuntza, egunen batean, gizarte parekide bat eraikitzeko gai izan gaitezen.

Badugu beraz bidea egiteko eta badugu zer aldarrikatu martxoaren 8an, baina baita gainerako urteko 364 egunetan ere.

### **Pasos firmes hacia la paridad y la igualdad**

*Al hilo de la celebración del día internacional de las mujeres, día que reivindica la igualdad entre mujeres y hombres, cabe destacar lo mucho que hemos avanzado, pero aún queda un largo camino por recorrer. A día de hoy se siguen dando situaciones de micromachismo y desigualdad en el ámbito laboral, en el cuidado familiar o en aspectos sentimentales o amorosos en los que parece que el papel que debe jugar una mujer o un hombre en una relación está definido. Es necesario poner de relieve todos estos aspectos para que podamos tomar conciencia de ello y reivindicar, también, por qué no, el día del padre cuidador porque la igualdad no es algo que nos compete sólo a las mujeres, sino también a los hombres. Sólo así lograremos construir, día tras día, una sociedad basada en la igualdad.*

 **MARTXOAK 8**  
**8 DE MARZO**

## EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA OSPATZEKO EGITARAU ZABALA

**Beasaingo Udalak, herriko talde eta eragileekin batera-Asmube, Lemniskata, Oriako Lamiak...-Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekintza egitarau zabala antolatu du. Ekintzek ia martxo osoa hartuko dute eta besteak beste, hitzaldiak, erakusketak, bazkariak, film proiektzioak edota antzezlanak eskainiko dira.**

**Jarduera horiek guztiek helburu dute berdintasunaren aldeko urratsak ematea, herritarrek sentsibilizatzeko eta parte hartzea sustatzea.**


## QUINCE NUEVAS PLAZAS CONCERTADAS EN ARANGOITI

*Las gestiones y negociaciones llevadas a cabo por el equipo de gobierno con el Departamento de Servicios Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa han dado sus frutos. Gracias al acuerdo alcanzado entre el Ayuntamiento y el ente Foral, Beasain ha sido incluido en el último plan foral.*

*Esta medida posibilitará aumentar en 15 las plazas concertadas de la residencia de Arangoiti, por tanto, el ala de la segunda planta y sus 15 puestos vacantes totalmente equipados podrán ser ocupados, próximamente, por nuevas personas con necesidades de psicogeríatras.*



## EXITOSO COMIENZO DE LOS DOS SERVICIOS DE REFUERZO DEL EUSKARA



*Siendo el euskara uno de los ejes principales de la política municipal, el Ayuntamiento ha puesto en marcha varios servicios de refuerzo del euskara con el objeto de impulsar su conocimiento y uso en Beasain. Y ello se debe a que las últimas mediciones realizadas sobre el uso del euskara muestran que cada vez son más los y las beasaindarras que saben hablarlo, pero por el contrario, su uso en la calle no aumenta en la misma proporción, sino que, incluso, desciende.*

*Por ello, el Ayuntamiento ha considerado totalmente necesario crear nuevas herramientas y servicios dirigidos a la ciudadanía para promover el uso y la normalización del euskara en nuestro municipio.*

*Con ese objetivo ya están en marcha los dos servicios de refuerzo lingüístico impulsados por el Ayuntamiento y además, según los primeros datos, ambos servicios han tenido un gran éxito y una muy buena acogida. Y es que el servicio dirigido a niños y niñas de entre 5-12 años ya cuenta con 180 personas inscritas y 140 usuarios y usuarias. Además, hay lista de espera en algunos de los turnos.*

### **Refuerzo lingüístico también para adolescentes**

El servicio de refuerzo del euskara dirigido a jóvenes entre 12 y 16 años, está gestionado por el Euskaltegi municipal y cuenta ya con tres grupos, dos en La Salle y uno en Loinazpe.

## **HIZKUNTZA ERREFORTZURAKO ZERBITZUEK HASIERA ARRAKASTATSUA IZAN DUTE**

### **Haurrei zuzendutako zerbitzuak jada 140 erabiltzaile ditu**

Abenduan hasi zen enpresa esleipenduna lanean. Ikastetxeekin harremanak hasi, izenemateak antolatu eta gurasoekin informazio saioak egin zituzten, zerbitzuaren nondik norakoak azaltzeko. Guztira 180 haurrek izena eman dute zerbitzuan, zenbait txandetan itxaron zerrendak daude eta momentu honetan, zerbitzuak 140 erabiltzaile ditu.

Zerbitzua astelehenetik ostegunera eskaintzen da Txelotxen eta Berritsun, bi txandatan, lehena, 17:00etatik 18:30era eta bigarrena, 18:30etik, 20:00etara. Lan metodologiari dagokionez, lehendabizi, etxerako lanak egiten laguntzen zaie haurrei euskararen ikuspegitik. Ondoren, euskararen lanketa eskatzen duten dinamika eta jolasak lantzen dituzte eta azkenik, azken ordu laurdenean, jolas libreak egiten dituzte.

### **Loinazpe eta La Salleko ikasle gazteek ere hizkuntza errefortzua jasotzen dute**

Euskararen kale erabilera sustatzeko helburu berari helduta, Udalak, bigarren hizkuntza zerbitzua jarri du martxan, kasu honetan, 12-16 bitarteko gazteentzat. Hizkuntza errefortzu zerbitzu hau Udal Euskaltegiak ematen du eta Euskaltegiko irakasleak joaten dira ikastetxeetara. Helburua bertako ikasleen euskararen erabilera indartzea eta hizkuntza gaitasunak areagotzea da.

40 orduko ikastaroa da, astean bitan egiten dituzte saioak eta ordubeteko iraupena izaten dute. Urtariletik ekaina bitartean eskainiko da zerbitzua eta hasi berria den arren, dagoeneko 3 talde osatu dira, Loinazpen bat, 6 pertsonekin eta La Sallen bi, 14 pertsonekin. Berezik, ahozko hizkuntza errefortzura dago bideratua zerbitzua, baina eskolako gaien inguruan ere laguntza ematen zaie ikasleei.

## OTSAILEAN BEASAINEN

Dantzaren  
inguruko  
proiektua  
martxan

Dagoeneko elkarteko kideak hasiak dira proiektua lantzen eta diagnosi fasea amaitzear dute. Emandako urratsen berri emateko eta diagnosa osatzeko alkatearekin bildu ziren duela aste batzuk. 2017an aurre proiektua aurkezteko konpromisoa hartu zuen elkartek.



Eusko Label urrezko aizkolarien txapelketa

## Lehen azoka bereziaren estreinaldia, jendetsua

Bertako zein inguruko herrietako pertsona ugari hurbildu zen larunbateko garaian garaiko produktuekin egindako lehen azoka berezira.

Egitasmo berri honek helburu du lehen sektorea bultzatzea, azoka indartzea, baserritarren lana eta produktuak balioan jartzea eta tokiko produktuen salmenta areagotzea. Horretarako, hileroko hileroko produktu bat izango da protagonista eta horren inguruko tailerrak, dastaketak edota hitzaldiak antolatuko dira.




Odolkiaren kofradiaren XXXII. kapitulua



Matxinbentako jaiak




80ko hamarkadari buruzko erakusketa Usurbe antzokiko erakusketa gelan



Arriaran auzoan argiteriaren berriztapena eta kiroldegiko lorategian berrikuntza lanak



Inauteriak 2017



Igartza Musika programa: Itxaso Sainz de la Maza piano jotzailearen emankizuna



BKL 50. urteurreneko aldizkariaren aurkezpena

## EZAGUTU ASMUBE

Elkarte honek 27 urte daramatza herrian berdintasunaren alde lanean. Emakume talde batek sortu zuen, emakumeek, Beasainen, elkargune bat izan zezaten.

Asmuberen helburu nagusiak bi dira pertsonak ahalduntzea, norberaren balioak azaleratuz eta gaitasunak esnatuz, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko urratsak ematea jarduera ezberdinen bitartez.

Horretarako, urtean zehar hainbat ekimen antolatzen dituzte, hitzaldiak, tailerrak, kirol saioak, irteera kulturalak edota erakusketak, beste zenbait jardueren artean.

Une honetan Asmubek 250 bazkide baino gehiago ditu eta Beasainen, erreferente bilakatu da, egungo gizartean emakumeei harrera egin, berdintasuna sustatu eta emakumeei laguntza eskaintzen dietelako.

### Entrevista a M<sup>a</sup> Paz Sánchez, Presidenta de Asmube

**La Asociación fue creada en 1990. Desde entonces, habéis recorrido un largo camino.**

**¿Qué cambios habéis notado en el municipio y en la sociedad en general desde la puesta en marcha de Asmube?**

*Yo llevo más de 10 años como socia, 3 como miembro de la Junta y 2 como Presidenta. He podido ver durante este tiempo, que, efectivamente, ha habido cambios.*

*Algo que empezó con un grupo de mujeres, hoy es una Asociación de más de 300 Socias. ¿Y esto que significa?, pues que se nos oye, se nos ve y se nos siente más que antes.*

*Participamos en varias comisiones del Ayuntamiento; Ondo Ibili Ondo Izan, Beasain Lagunkoia, Igualdad, etc.... También acudimos a la mayoría de las invitaciones que desde el Ayuntamiento, Goieki, Diputación etc... recibimos para acudir a otro tipo de actos.*

*Muchas Asociaciones de Beasain contactan con nosotras y en ocasiones vamos juntos a algunos eventos.*

*Resumiendo llevamos a cabo muchas y muy diversas actividades y las personas cuentan con nosotras para muchísimas cosas.*

**¿Cuál es vuestro principal reto a día de hoy? ¿Cómo afrontáis ese reto?**

*Como asociación lo que pretendemos y nos gustaría es que se acercaran más mujeres con nuevas ideas. Es necesario que entre savia nueva.*

*A las personas que tenemos actualmente, les pediría que se involucren más, quiero decir, que no sólo acudan a los talleres o a las distintas actividades sino que se animen y se acerquen a nuestro local, que nos den ideas, que colaboren... estamos deseando de que lo hagan. Mientras, nosotras seguiremos trabajando.*

**Cada año Asmube organiza un amplio programa de actividades para celebrar el Día Internacional de la Mujer.**

**¿Qué novedades o particularidades tiene el programa de este año?**

*Solemos organizar muchas actividades, la más novedosa, y que no se ha hecho nunca, es el homenaje a dos mujeres muy queridas en Beasain.*

Ez da makala elkarte honek udalerrian egiten duen lana eta horregatik, aitortza berezia zor diogu ia 30 urtez Beasainen aukera berdintasunaren alde lan egin duen elkarte honi. Zer esanik ez, atak zabalik dituela, beraz bazkide izan nahi duen edota antolatzen dituzten ekimenetan parte hartu duen edonor gerturatu daiteke saio ezberdinetara edota Asmubeko egoitzara.

**¿De dónde surge la idea de homenajear a dos mujeres de Beasain?**

**¿Quiénes serán las dos mujeres homenajeadas?**

La idea surgió en el Taller de Lectura y Cine con perspectiva de Género de Asmube con el objetivo de visibilizar a la mujer de Beasain. Nos pareció interesante celebrar un acto así, para conmemorar a las mujeres del pueblo por sus trayectorias.

Este año hemos decidido homenajear a Ilu Valverde, persona muy activa y conocida por sus trabajos en cerámica y pintura, y Dioni López, profesora de pintura ya jubilada y socia de Asmube desde sus inicios.



**MARTXOAK 8**

18:00etan udal areto nagusian

## AITORPEN OMENALDIA HERRIKO BI EMAKUMEEI

Omenaldi honek helburu du emakumeen lana balioan jartzea, gizarte osoari, sarritan isilpean, emakumeek egindako ekarpena ezagutzera emateko eta eskertzeko.

**OMENDUAK**

**ILU VALVERDE**



1928. urtean jaio zen Valladolideko herri txiki batean. 16 urte zituela, familia osoarekin Lazkaora etorri zen eta ondoren zenbait urtez Bilbon aritu zen lanean.

Familia Lazkaora bizitzera etorri eta bera, Bilbora joan zen lan egitea. Beasaingo bizilagun batekin ezkondu eta 5 haur izan zituen. Labanagintzan jardun zuen baina familiagatik lan egiteari utzi zion. Seme-alabak hazi zirenean, aurretik egin ezin izan zituen pintura eta zeramika lanetan aritu zen 26 urtez.

**DIONI LÓPEZ**



Burgosen jaio zen duela 81 urte eta 22 urte zituela etorri zen Beasainera bizitzera. Emakume honek bere bizia osoa eman du familia zaintzen; emakume gogotsua izan da beti eta alabak, senarra, gurasoak... zaindu behar izan dituen arren, eskulan eta pintura eskolak ere eman zituen 25 urtez Asmuben eta baita Zaharren Egoitzan ere.

## MARTXOAK 8 MARZO - EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES

| Martxoak 9-23                                                                                                                            | Martxoak 7-14-21-28                                                                                                                                                                                                                                     |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 17:30etik 19:30era. Igartzako jauregian<br><b>BATUKADA IKASTAROA</b><br>Irakasleak: Ainara Sarasketa-Arantxa Vicedo<br>Berdintasun saila | 17:30-19:30. Txirrindularien elkarte an<br><b>IKASTAROA:</b> Emakumea eta osasuna, elkarteko eta ikasteko gunea <i>Mujer y salud, espacio para el encuentro y el aprendizaje</i><br>Hezitzaileak: Nekane Tomasena-Tatiana Arcellus<br>Berdintasun Saila |
| Martxoak 8                                                                                                                               | Martxoak 13                                                                                                                                                                                                                                             |
| 10:00tan Usurbe antzokian<br><b>M-LEHIAKETAKO SARI EMATEA ETA SOLASALDIA</b><br>Landaguneko emakumeen eskutik<br>Udal Euskaltegia        | 17:30-19:30 Udaletxeko Batzar aretoan<br><b>IKASTARO FEMINISTA, II URRATSA FORMACIÓN FEMINISTA, NIVEL II</b> Hezitzailea: Beatriz Zalakain<br>Berdintasun saila                                                                                         |
| Martxoak 7-14-28                                                                                                                         | Martxoak 6-7-8-10                                                                                                                                                                                                                                       |
| 17:30 – 20:00 Igartzako jauregian<br><b>CURSO: "EMOCIONES Y EMPODERAMIENTO"</b><br>Formadora: Miriam Herbón<br>Berdintasun saila         | Loinazpe eta La Salleko ikasleei zuzenduta<br><b>TAILERRAK: "AMODIO ERROMANTIKOAREN ERALDAKETA"</b> Hezitzailea: Susana Manzanedo<br>Hezkuntza eta Berdintasun saila                                                                                    |
| Martxoak 27                                                                                                                              | Nazioarteko emakumeen egunaren inguruan antolatu diren gainerako ekintzak ezagutzeko kontsultatu Udal Agenda                                                                                                                                            |
| 17:00-18:30 Udaletxeko Batzar aretoan<br><b>BERDINTASUN FOROA</b><br>Berdintasun saila                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                         |



### KZ gunea IKASTAROA

#### Urruneko formakuntza Formación a distancia

| Ikastaroa   Curso                       | Hasiera   Inicio | Iraupena   Duración |
|-----------------------------------------|------------------|---------------------|
| Twitter                                 | 2017.03.06       | 2 aste   2 semanas  |
| Facebook                                | 2017.03.06       | 2 aste   2 semanas  |
| Pinterest                               | 2017.03.06       | 2 aste   2 semanas  |
| Sare sozialak Redes sociales            | 2017.03.13       | 5 aste   5 semanas  |
| Ofimatika aurreratua Ofimática avanzada | 2017.03.13       | 5 aste   5 semanas  |
| Android                                 | 2017.03.13       | 5 aste   5 semanas  |
| Wordpress                               | 2017.03.13       | 5 aste   5 semanas  |

#### Ikastaro presentzialak Cursos presenciales

| Ikastaroa   Curso                                                                 | Hasiera   Inicio         | Iraupena   Duración                    |
|-----------------------------------------------------------------------------------|--------------------------|----------------------------------------|
| Argazki ukitua Gimp erabiliz Retoque fotográfico con Gimp                         | 2017.03.01               | 16h (09.00-11.00)                      |
| Sare Soziales bitartez komunikatu zaitez Comunicar a través de las Redes Sociales | 2017.03.01               | 16h (18.00-20.00)                      |
| Oinarrizko Internet Internet básico                                               | 2017.03.06<br>2017.03.20 | 20h (11.00-13.00)<br>20h (18.00-20.00) |
| LibreOffice (Euskara)                                                             | 2017.03.20               | 20h (09.00-11.00)                      |
| Google aplikazioak Aplicaciones Google (Euskara)                                  | 2017.03.13               | 16h (16.00-18.00)                      |

Informazio gehiagorako: [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus)

## JAKINARAZPENA NOTIFICACIÓN

### UDAL TASAK ORDAINTEKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA

*Solicitud de ayudas en materia de tasas municipales*

**Informazioa | información:**

**943 02 80 50**

### ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA

*Solicitud de ayudas para rehabilitación de viviendas*

**Informazioa | información:**

[www.euskadi.eus/plan-renove/2017](http://www.euskadi.eus/plan-renove/2017)

**943 02 80 50**



Beasaingo Udala